

/ Nabarmentzekoak

- > 380.750 euro 15 proiektu aurrera eramateko txirotutako herrialdetan (2. or.)
- > Zabalik baldintza meteorologiko txarretarako Neguko Ostatu zerbitzua (4. or.)
- > Udaltzaingoko agente boluntario batzuek lagunduko dute Valentziako Picanya herrian (4. or.)



* Gabonak
Barruko gehigarria

Umorea. Abenduak 6, ostirala,
19:30ean, Muxikebarrin, "Tu-tum, platz!"
(euskaraz), Jon Plazaolarekin. 6€.

Familiatzako kontzertua. Abenduak 8, igandea,
18:00etan, Muxikebarrin, "Famijazz". 6€.

A-
GENDA

Zerbitzuen birplanteamenduak herritarren eskaerei erantzun nahi die, eta ingurumen-joeretara egokitu

Kale eta edukiontzien garbiketa areagotzea, hondakinak biltzeko ordutegiak egokitzea eta herritarrak Getxo jasangarriago batean inplikatzeko dira udal-kontratu berriaren helburu nagusiak

Hiri Hondakin Solidoak (HHS) garbitzeko eta gaika biltzeko zerbitzuak herritarren portaereta eta ingurumen- eta jasangarritasun-joeretara egokitzea da Udalaren kontratu berriaren helburu nagusia, hainbat zerbitzu orokor emateko: hiri-garbiketa; gaikako bilketa eta hondakin garraioa; udal ingurumen-gunearen ustatzea; tamaina handiko hondakinak eta tresnak biltzea; eta etxeko hondakin arriskutsuak biltzeko guneak kudeatzea, urriaren 1etik martxan daudenak.

Kontratuaren gehieneko aurrekontua, bost urterako, 58 milioi euro ingurukoa da (BEZa barne), eta hondakin Legean ezarritako birziklatze-helburuak betetzen saiatuko da: Hiri-hondakin %55 2025erako, %60 2030erako eta %65 2035erako.

Hondakin bilketako ordutegi berria

- **Ordubetez atzeratzea** baldez ureztatzea, hondakinak biltzea eta espaloia eta galtzadetakoko ekortzeko makinak erabiltzea.
- Hondakinak biltzeko alboko zamalanetako kamioiarekin eta satellite kamioi txikiarekin gauzez egiten diren zerbitzuak kentzea.
- Hondakin organikoaren efektiboak bikoiztu eta birziklatzeko prestakuntza maximizatuko da. Eta edukiontzi marroien (organikoak) eta grisaren (gainerakoak) barruan **karbono aktiboko plakak** jarrita izango dira, baita lurperatutako ekipotetan ere, usain txarrak saihesteko.
- Edukiontziak garbitzeko gasezko kamioi bat (horien garbiketa-maiztasuna hobetuz), bilketarako gasezko 2 kamioi berri eta geroko jarduera eta ostalaritza bilketarako gasezko beste bi ibilgailu gehitzen dira.

Jatorrizko bereizketan herritarren inplikazioa

- Europako jarraibide berriak eta Bizkaiko hondakin plan integrala betetzea bilatzen da:
- Etxeko hondakin toxiko eta arriskutsuak biltzeko dauden 10 *GarbiGertu* edo puntu finkoen kudeaketa. Asteko 7 egunetan 24 orduz irekita daude (17ra handitzea aurreikusitako da).
 - Kaleko pilen 19 edukiontzien eta lanpara eta pilen merkataritzako edukiontzien zaintza.
 - 94 466 01 81 telefono berria, hainbat zerbitzutarako.



Amaia Aguirre alkatea:

"Kale eta edukiontzien garbiketa areagotzea, hondakinak biltzeko ordutegiak egokitzea eta herritarrak Getxo jasangarriago batean inplikatzeko dira kontratu berriaren helburu nagusiak. Herritarren laguntzarekin, Getxo garbi eta iraunkorra lortuko dugu. Kontratu berria berritzailea da sortutako hondakin-kiko erantzukizunean, eta kale eta edukiontzi garbiagoak ikusiko ditugu; udalerriri garbiagoa, udal gobernuak (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta oposizioko alderdi nagusiak (PP) adostu genuen konpromisoari esker. Kontratu berri honek 2030ean %60ra iristea lortuko du sortzen ditugun hondakinak aprobetxatzeko, berreskuratzeko eta birziklatzeko gaitasunean".

Janire Ocio Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia:

"Herritarrek sumatu behar dutela beren eskaerei erantzuten diegula; zerbitzu berriak espazio publikoaren erabilera berriei erantzuten diela, espazio horiek erabiltzen dituzten pertsonen ohituren eta ordutegi eta asteko egunen arabera. Alde horretatik, Getxoko bizilagunei entzun ondoren, aurreratu dezaket zerbitzu berriak gutxitu egingo dituela zarrak eta usainek eragindako eragozpenak, eta aste honetan bertan hondakinak biltzeko eta garbiketako ordutegiak aldatu dugula: goizetan beranduago hasten gara biltzen eta garbitzen, eta gaueko zerbitzuak minimizatu egin ditugu".



Bideak garbitzeko zerbitzuak indartzea

- 2 ekorketa eremu berri (24tik 26ra pasako da)
- Eremu horietako 24tan berreskuratuko da *guneko behargina*-ren kontzeptua (12 hurbileko aldagailuarekin).
- Eskuzko ekortze-eremuetan espaloiko 5 xurgagailu gehiago, eraginkorragoak eta isilagoak.
- Orga elektrikoak, langileen ergonomia errazteko, eta espaloiak ekortzeko 2 makina.

Larrañazubiko Ingurumen Gunea

- Eskualdeko konpostaje-planta, Garbikerrekin lankidetzan, eta errefusentzako Biolehortze-planta (eraikitzen ari da), baita bereizketak eta berreskuratzeko mailak hobetzeko beste ekintza batzuk.
- Zerbitzuaren bulegoak, aldagelak eta flotaren garajea, zerbitzuak ematerakoan kontratatutako enpresen mende ez egoteko.
- Karbono-aztarna murriztuko da, ibilgailuen eta makinaren ibilbide ez-emankorrak saihestuz, guztia konplexu horretan zentralizatuta edukitzeagatik.



AZAROAK 28 OSTEGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Ildiko Enyediren "En cuerpo y alma" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

Txokoa. 19:30ean, Villamonte Kultur Etxean. Eneko Bidegainen "Bichta éder" liburuari buruzko solasaldia, Egizuk antolatuta.

GetxoModa. 19:00etatik aurrera, "Olatua" itsas bidaietako terminalean. Sarrera gonbidapenarekin (parte hartzen duten dendetan).

AZAROAK 29 OSTIRALA

Antzerkia. 19:30ean, Muxikebarrin, "Kanpora sartzen" (euskaraz) Xabin Fernández eta Intza Alkainarekin. 8€.

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, Sonic Trash taldearen emanaldia. 8€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Pablo Agueroren "Akelarre" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Zine Foruma. "Il Cine: Cultura y Sociedad. Un espacio de diálogo". 18:30ean, Romo Kultur Etxean, Clin Eastwooden "Sully" filmaren proiektzioa. "La técnica y las decisiones humanas" (gaztelaniaz). Moderatzailea: José Manuel Gutiérrez (Artearen Historiako irakaslea). Doan. Erreserbak eta informazioa: cineforumgetxo@icmediaeus-kadi.es

Solasaldia. 19:00etan, Fadura kiroldegian. "Ipar kanala, North Channel", Iskander Sagarminga igerilariaren eta Eider Eibar ilustratzailearen eskutik, euskaraz. Swim Camp Getxo elkar-teak antolatuta. Sarrera irekia.

AZAROAK 30 LARUNBATA

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, Errobiren emanaldia. 20€.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Forcione & Giorgio Serci gitarra bikotearen eskutik. Sarrera: 5€.

Fair Saturday. Kontzertu solidarioa. 18:30ean, Kristo Eroslearen parrokiaren, Ipar-Alde (Derio) eta Andrés Isasi Musika Eskola (Getxo) abesbatzen emanaldia. Vicente Ferrer Fundazioaren alde.

Erakusketa kolektiboa. "Hiru gustuko Pintura" Lucia Martínez, Koldo Eskubi eta Lourdes Aguirreche (Malu) artistekin, abenduaren 30era arte. Bisitak ostegunetan eta ostiraletan, 18:00etatik 20:00etara, BENTAN (Aingeru etorbidea 49, Andra Mari).

Dantza kalse solidarioak. "Mundu bidezkoago baten alde dantzatu", 10:00etatik 20:30era, Sunu Buga Buga elkar-teak eta Ana Lara Dantza Eskolak antolatuta, azkenaren egoitzan (Maria Goiri 14, Algorta), Fair Saturdayren barruan.

Erakusketa eta tailerra. "Afrikan murgiltzen". 10:00etatik 13:00etara, Villamonteko Kultur Etxean. Bisita gidatuak ordu erdi eta tailerrak txandaka. Fair Saturdayren barruan. Sarrera doakoa. Munduko Medikuek elkar-teak, Ner Group taldearekin lankidetzan, antolatuta.

ABENDUAK 1 IGANDEA

Zinemabarrri. 12:00etan, Muxikebarrin, "Buscando a la mágica Doremi" (gaztelaniaz). 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Lagunak. Abentura munstroen uhartean" (euskaraz). 2,50€.

Antzerkia. XIX. Emakumeak Eszenan Zirkuitua. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "El triunfo" (gaztelaniaz). 4,50€.

ABENDUAK 3 ASTEARTEA

Solasaldia. 19:00etan, Villamonteko Kultur Etxean. Verónica Hormaechea explicará la labor de la ONG Sunu Buga Buga GKEaren lana Gambian azalduko du. Doako sarrera.

ABENDUAK 4 ASTEAZKENA

Terrorismoaren biktimei omenaldia. 12:00etan, biktimeen omenez San Inazio plazan jarritako "Guztien etxea" izeneko eskulturaren ondoan.

Liburu-aurrekeza. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "La hija del indiano (y otros cuentos)" liburuaren aurrekeza (gaztelera) Mikel Sorli egilearekin.

ABENDUAK 5 OSTEGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Jose Mari Goenaga eta Jon Garañoren "Loreak" (AJB). 7 urtetik aurrera. 3,50€.

ABENDUAK 6 OSTIRALA

Umorea. 19:30ean, Muxikebarrin, "Tu-tum, platzi!" (euskaraz), Jon Plazaolarekin. 6€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Jean Renoiren "La regla del juego" (AJB). Adin guztiak. 3,50€.

ABENDUAK 7 LARUNBATA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Eukalyptus" (euskaraz), Jon Ander Urresti eta Beñat Urrutiarekin. 6€.

ABENDUAK 8 IGANDEA

Zinemabarrri. 12:00etan, Muxikebarrin, "Mavka, Basoko guardiana" (euskaraz). 2,50€.

Familiantzako kontzertua. 18:00etan, Muxikebarrin, "Famijazz", Kike Mora (baxua), Rakel Arbeloa (bateria), Elsa García-Lizundia (saxoa) eta Mikel Gaztañaga (pianoa). 6€.

380.750 euro 15 proiektu aurrera eramateko txirotutako herrialdeetan

Udalak 380.750 euro banatuko ditu GGKEek txirotutako herrialdeetan aurrera eramango dituzten 15 proiekturen artean, 2030eko Agendaren alde lan egiten jarraitzeko. Proiektu horiei esker 103.191 pertsonak (horietatik 72.074 emakume), horien gaitasunak handituko dituzte, hezkuntza, emakumeen jabeakuntza, tokiko garapen, ura, eta osasun arloetan sustatuta.

Diruz lagundutako proiektuak

Diru-laguntzak hurrengoak dira:

- 46.000 euro San Martín de Tours & Misio Taldearentzat eta Mufungako Lagunen Fundazioarentzat, Kansenyari (R.D.Congo).
- 30.000 euro Medicus Mundirentzat, elikadura-subiranotasunaren sustapenerako haurtzaroen,

- Guatemalan.
- 30.000 euro Zabalketarentzat, indarkeriaren kontrako borrokarako, Perun.
- 30.000 euro Entre Amigos-Lagun Artean elkar-tearentzat, Guatemalan Trans Gizonen komunitatearen alduntzerako.
- 30.000 euro Herriarte-Entrepueblosentzat, emakume indigena nekazarien ahalduntzerako, Guatemalan.
- 29.990 euro Alboanentzat, elikadura-segurtasunerako Amazonian, Perun.
- 29.990 euro Sunu Gaalantzat, haurtzaindegia baterako Senegaleko Dakarrean.
- 29.600 euro Ayuda Mas-i, Bizitzaren aldeko Emakumeentzat, Gambian.
- 24.950 euro Eki Fundazioarentzat, Sekeleka CSIM zentrorako, Mozambiken.
- 29.400 euro Sunu Buga Bu-

- garentzat, zentro baterako, Gambian.
- 29.400 euro Mugarik Gaberentzat, unibertsitate-rako, El Salvadorren.
- 14.700 euro Derandienentzat, alternatiba eko-iraunkorretarako, Tanzanian.
- 9.900 euro Taldeka Lagundu, Indiako Anekalen.
- 5.000 euro ECCA Romo taldearentzat, Telemako buru-osasun zentrorako (R.D.Congo).

Bestalde, ekintza humanitarioaren arloan, Zabalketarako 12.000 euro jasoko ditu, Kolonbiako Juradón izandako uholdeen ondoren larrialdietarako laguntzak bideratzeko.

Sunu Buga Buga eta Munduko Medikuek taldeen jarduerak

Sunu Buga Buga GKEak eta Ana Lara Dantza Eskolak *Mundu bidezkoago baten alde dantzatu* izeneko dantza solidarioaren eguna antolatu dute larunbat honetarako, azaroak 30, aipatutako eskolaren egoitzan (M^a Goiri, 14, Algorta). 10:00etatik 20:30era, adituek eskolak emango dituzte, eta GKEarentzat dohaintza bat egin ahal izango da. Abenduaren 3an, ostirala, Veronica Hormaecheak erakundeak Gambian egiten duen lana azalduko du, *Sunu Buga Buga etorkizunari irribarrez* izenburupean. Hitzordua 19:00etan izango da, Villamonteko Kultur Etxean.

Bestalde, Afrikako historia beste ikuspuntu batekin erakustea da Munduko Medikuek erakundeak Ner Groupekin elkarlanean antolatutako *Afrikan murgiltzen* erakusketa eta tailerren helburua. Hitzordua larunbat honetan izango da, 10:00etatik 13:00etara, Villamonteko Kultur Etxean.

Hegaztiak Abran

La Bola hondartza ondoko pasealekuan, larunbat honetan, hilak 30, Abratik mugitzen diren hegaztiak, batez ere migrazioaileak, begiratzeko beste jardura bat egingo da. Orduetia, 09:30etik 13:30era izango da. Udalak antolatuta, doako jardura da eta parte hartzeko ez da beharrezkoa alde aurretik izena ematea.

Adierazpen Instituzionala A25a dela eta

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna azaroaren 25ean, astelehenean, ospatu zela eta, Udaleko Bozeramaleen Batzordeak adierazpen instituzional bat onartu zuen, aho batez. Horretan Udalak gaitzespen irmoa adierazi zuen indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurrean, eta beste erakunde batzue-

kin, mugimendu feministarekin, emakumeen elkar-teekin eta gizarte osoarekin modu koordinatuan lan egiten jarraitzeko konpromisoa ere berretsi zuen, emakumeen aurkako indarkeria ukatzen edo/eta ezerezten duen edozein erreakzio matxistaren kontrako indarra jarritz. Testu osoa: <https://labur.eus/oBXYO>



Garbigertuek protagonismo handiagoa dute birziklapenaren erronkan

Garbigertu sistema berriak, etxeko hondakin toxiko eta arrisku-tsua gordetzeko puntu garbi finkoak, protagonismoa hartu du Udalak ezarri duen birziklatzearen erronkan. Datuek hala baieztatzen dute: uztailen Garbigune Mugikorraren aurreko sistematik garbigune finkoaren edukiontzi berrira aldatu zenetik urrira arte, bildutako hondakin kiloan hazkundera nabarmena izan da, %400 ingurukoa. Zehazki, ekainean 4.260 kilo utzi zituzten garbigune mugikorren, eta urrian berriz, 19.423 kilo edukiontzi finkoan, zerbitzuak emandako balantzearen arabera. Urrian bakarrik 59.675 artikulua eta 19.423 kilo hondakin bildu ziren, aurreko hilean baino %58 eta ia %70 gehiago, hurrenez hurren. "Horrek erakusten du, hilabetez hilabete, udalerriko herritarrek gero eta gehiago erabiltzen dutela zerbitzu hori", Iñigo Urkitza Ingurumen Zerbitzuko zinegotziak aditzera eman duenez. Pila alkalinoak, botoi-pilak, sendagaiak, olioak eta pinturak izan dira edukiontzi finkoan bilketa-eskaera handiena izan duten hondakinak.

Tratu txarren biktimeak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailu legala: BI-388-87



Getxo Jazz Talde Lehiaketan izena emateko epea zabalik

Datorren otsailaren 14ra arte egongo da zabalik Getxo Jazz 2025eko Talde Lehiaketan izena emateko epea. Datorren urteko uztailaren 2tik 6ra ospatuko da jazzaldia. Ohikoa denez, jazz musika jotzen duten joera edo estilo guztietako talde europarrek parte har dezakete lehiaketa honetan. Parte hartu ahal izateko gehieneko adina 30 urtekoa da, 2025ean beteta, eta behar bezala egiaztatu beharko da

izena ematen den unean.

Lau talde aukeratuko dira behin betiko hautaketan, martxoan. Talde irabazleak 4.500 euroko saria jasoko du eta, gainera, bere kontzertuaren zuzeneko CDa grabatuko du. Bigarren saria 1.900 eurokoa da, eta bakarlari onenak 950 euro jasoko ditu.

Deialdiari buruzko informazio osoa: www.getxo-kultura.eus

Forcione & Serci LIVE

Antonio Forcione italiarra eta Giorgio Serci taldekide italiar-sardiniarra (gitarristak) Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan arituko dira larunbat honetan, hilak 30, 19:30ean. Soinu afrikarrak, flamenkoak eta latinoak jazzarekin uztartuko dira. Sarrera: 5 euro.

Kontzertu solidarioa

Gainera, Andres Isasi (Getxo) eta Ipar-Alde (Derio) abesbatzek abestuko dute, 18:00etan, Kristo Erosle parrokian. Fair Saturdayren barruan dagoen emanaldiaren diru-bilketa (dohaintza) Vicente Ferrer Fundazioarentzat izango da.



Neguan Flamenco zikloak Muxikebarrira zabalduko du eskaintza

SGAE Fundazioak IV. Neguan Flamenco 2024-2025 ekitaldiaren emanaldien zati bat Muxikebarrira esportatuko du, non ziklo berriko bi kontzertu egingo diren. Eta Bilboko Campos Eliseos Antzokian bere oinarrizko espazioari eutsiko dio. Urtarrilaren 9an Alicia Morales (Cante) eta Antonia Jiménez (gitarra) arituko dira eta, bi aste geroago, 23an, Naike Ponce (ahotsa) eta Manuel Cazas (gitarra) musikarien txanda izango da. Bilbon, kontzertuak abenduaren 12an eta 26an izango dira. Helburua da erreferente artistiko femeninoen figura bultzatzea, Euskadin flamenkoa sustatzeaz gain.



Errobi duela 50 urte jaio zela ospatuko da

Errobi jaio zela 50 urte betetzen dira, eta Anje Duhalde eta Mixel Ducau Muxikebarrin elkartuko dira larunbat honetan, azaroak 30, urteurren hori ospatzeko. Euskarazko rockaren aitzindariak, 20:00etatik aurrera (sarrerak 20 eurotan) euren abesti mitikoak eskainiko dituzte, beren esperientzia musikalek aberastutako egungo soinetara gerturatuz. Oraingoan, Txomin Duhalde izango dute la-

gun baterian, Rémi Gachis gitarran eta Iñigo Telletxea baxuan.

Sonic Trash


Gainera, Sonic Trash rock talde bilbotarrak Split album aurkeztuko du ostiralean, hilak 29, 21:00etan, Muxikebarrin, Víctimas Clubekin partekatutako EPA. Psikodelia, punka, popa eta lisergia nahasten dira bere lanean eta errezitalak 8 euroko prezioa du.

“Kanpora sartzen” eszenara

Xabin Fernandez eta Intza Alkain arituko dira ostiral honetan, hilak 29, 19:30ean, Muxikebarrin, *Kanpora sartzen* antzezlanean. Euskarazko istorioa da, Xabinena, lehen pertsonan idatzia, seropositiboa izanda bizitzea nolakoa den azaltzen diguna, sentimendu gordinenen eta umorearen arteko oreka bilatzen duena. Sarrerak 8 euro balio du.

“El triunfo”

Bestalde, Emakumeak eszenan zirkuituaren barruan, Romo Kultur Etxeak *El triunfo* hartuko du abenduaren 1ean, igandea, 19:00etan. Antzerkiak eta kulturak oraindik entzierroan dagoen askatasun sentazioa nola transmititu dezaketen kontatzen du. Sarrera: 4,50 euro.



11.242 euro Taldeka Lagunduz taldeari emanda

Irantzu Uriarte Kultur Etxeko presidentek eta Carmen Díaz Gizarte Kohesio zinegotziak Taldeka Lagunduz GGKEari eman zizkioten pasa den ostiralean, hilak 22, azaroaren 6tik 10ra, Udaleko Liburutegi Zerbitzuak, Garapenerako Lankidetzaren arloarekin batera, antolatutako Bigarren Eskuko Liburuaren Azokan bildutako 11.242 euro. Diru zenbatekoa herritarrek emandako liburu, aldizkari, koadernotxo eta entziklopedien salmentatik atera ziren, euro batetik gorako prezio sinbolikoan. Txekea elkarteko Beñat Enciondok jaso zuen, eta *Lortzeko asmoa* proiektura bideratuko dute, Indian gaueko ikasketa-zentroetan adingabeen oinarrizko ikaskuntzari aurre egiteko.



«Inclusión radical» liburua aurkeztu dute

Christian Rodríguez Getxoko bizilagunak, mendizaletasun inklusiboa praktikatzen duen Ibilki Elkarteko kideak, *Inclusión radical* liburua aurkeztu berri du. Liburuak gaiari buruzko hainbat testu biltzen ditu: historia pixka bat, praktikatzen diren beste leku batzuei buruzko errepeaso geografiko bat eta egileak elbarritasunen bat duten pertsonekin mendira joan zen urteetan bizitako pasadizoak. «Mendi handientsuetan, natura goratzen da bere adierazpen handiengan, pertsona grinatsu eta abenturazaleen talde batek mendiko klub bat eratu du, non inor ez den kanpoan geratzen. Liburu honek gailurretarako bidaia zirraragarria bizitzera gonbidatzen zaitu, baina baita inklusioaren eta adiskidetasunaren bihotzera ere», dio.

Udaltzaingoko agente boluntario batzuek lagunduko dute Valentziako Picanya herrian

Udaltzaingoko agente batzuk Picanya Valentziako udalerrian daude aste honetan, pasa den urriaren 29an jasandako denboralearen ostean laguntze aldera. Zehazki, lau polizia boluntario, bi polizia-ibilgailu errotulatuekin, laguntzen ari dira udalerririk horretako agenteei beren lanetan; izan ere, eskualdeko beste toki asko bezala, uholdeek larriki kalte zuten.

Udal gobernuak lau agente hauen prestutasuna eta abenduaren lehen arte Valentzian egingo duten lan boluntarioa eskertu ditu, data horretan horien itzulera aurreikusita baitago, joan den azaroaren 25ean abiatu ondoren. Valentziako Segurtasun Agentziak kudeatu du joan-etorria kaltetutako herrien beharren arabera, eta Getxoko agenteak Picanyara bideratzeaz arduratu da.



Zabalik dago jada Neguko Ostatu Zerbitzua, baldintza meteorologiko txarrak daudenetarako

Neguan, oso eguraldi txarra egiten duenean, lo egiteko lekurik ez duten pertsonen ostata emateko Neguko ostatu-zerbitzua aste honetan jarri da indarrean eta 2025eko martxoaren 31ra arte egongo da martxan. Baldintza meteorologiko txarrak dira 5 graduko edo hortik beherako tenperatura, eta alerta laranja edo gorria euriagatik. Aipatutako egoera horietan, jarraian hiru gauetan egonaldia bermatuko da, eta hiru gauetan luzatu ahal izango da, egoerak irausten badu.

ridad kaleko 10. zenbakian (Portu Zaharran lekututakoan) ematen den eguneko arretako eta gaueko harrerako zerbitzura gehitzeko aukera ematen digu, eta, horrela, zaurgarritasun handieneko egoeran dauden pertsonentzako plazak handi ahal izateko”.

Getxo-Urbe Kosta eskualdean etxerik gabeko pertsonentzako aurreikusitako zerbitzua Berangon eskainiko da gizonezkoentzat, eta Argitzean (Algorta) emakumezkoentzat, toki libreak izanez gero. Eta toki librerik ez balego, ostalaritzako establezimenduetara joko dute. Sarrera ordutegia 21:00etatik 22:00etara izango da eta irteera 09:00etan. Ohea eta edari bero bat eskainiko zaie bertaratzen direnei.

Carmen Díaz Gizarte Kohesiorako zinegotziak balioetsi du “Getxoko Udalak Uribe-Kostako Mankomunitatearekin duen akordioa, zerbitzu hori mantentzeagatik, izan ere Ca-



Saritutako entitateak Elkarlan sariekin

Argia Fundazioak, Getxoko Piraguismo Klubak, EuskarAbentura Euskara eta Kultura gazteengan sustatzeko elkarteak, Lurgai Fundazioarekin batera, jaso zuten pasa den azaroaren 20an, asteazkenean, Eusko Jaurlaritzak ematen dituen Elkarlan sariak Muxikebarrin ospatutako ekitaldian, Maria Ubarretxena Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernuko sailburuaren eskutik, eta Amaia Aguirre alkatearen aurrean. Getxori lotutako ekimen sarituak (argazkian agintariekin batera) hurrengoak izan ziren: Arte Komunitarioa, gaixotasun mentala duten eta ez duten pertsonen gizarte-kohesioa sustatzeko proiektua (Argia Fundazioa); 125 gazteren partaidetzarekin Euskal Herria oinez zeharkatzen duen hilabeteko abentura den EuskarAbentura espedizioa, eta Dragoi ontzia eta Paracano, bizitza berri baten hasiera izenekoa, kirolaren bidez osasuna eta erreku-perazio fisiko eta psikologikoa sustatzeko (Getxoko Piraguismo Kluba). Horiarekin batera, saritutako Lurgaiaren proiektua Gure basoen alde auzolanean izan zen.

Euskaraldiaren Getxoko “Hamaikakoa”ren aurkezpena

Larunbatean, azaroak 30, izango da Algortako San Nikolas plazan 2025eko Euskaraldia hizkuntza-ariketaren Getxoko Hamaikakoa-ren aurkezpena, Udalak eta Egizu eta Bizarra Lepoan elkarteek sustatuta. Izan ere, erakunde horiek datorren maiatzaren 15etik 25era ospatuko den Euskaraldiaren Getxoko enbaxadoreak izango dira, esparru desberdinetan euskararen erabilpena sustatzean arituko direnak eta gainera lan egingo dute hizkuntza-ariketaren helburuak lortzen laguntzeko.

teko mokadua dastatzeko aukera izango da.

Aurrekontua

Udalak 75.000 bideratuko ditu Euskaraldia udalerrian sustatzeko. Horietatik, 38.000 euro, Getxoko Euskaraldia dinamizatuko duen langilearen gastuetarako izango dira, Bizarra Euskara elkartearekin sinatutako duen hitzarmenaren bitartez, eta 37.000 euro 2024an eta 2025ean sentsibilizazio eta difusio... jardueretarako.

Ekitaldia 13:00etan hasiko da eta bertan Nebula Selektah musika jartzailea arituko da, Amaia Sinobas dantzariak eskainiko duen ikuskizun parte hartzailearekin batera. Ondoren Hamaikakoa osatzen dutenak ezagutzera emango dira eta ekitaldiari amaiera emango.

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta antolatuko diren ekintza guztietan parte hartzeko deia egin die Udalak herritar guztiei. Udalak berak eta udalerririk elkarteek antolatutako ekintzetan.

Bat egin Getxoko Euskararen Egunarekin



225 lagun “Bizilagunak-La familia de al lado” bazkarietan

225 lagunek parte hartu zuten igandean, hilak 24, udalerrian egindako bertoko eta jatorri atzerriko familien arteko bazkarietan, Bizilagunak-Aldameneko familia ekimenaren barruan, udalerrian Udalak, EGIZU elkarteak eta Getxoko Etorrinak Federazio Plataformak sustatuta, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Oraingoan bazkariak udalerririk ez zuten tokietan (Benta, Abian, Azebarri, Pertsonalde, San Martin eleizakoa, San Nikolas Zabalik eta Romoko bat) izan ziren, bakoitza 6-8 lagunek osatuta, ekimenaren esentzia eta parte hartzaileen interakzioa mantentzeko. Bazkarietan Euskal Herriko, Aljeria, Argentina, Bangladesh, Bolivia, Marroko, Palestina, Txile, Kuba eta Venezuelako pertsonak hartu zuten parte, besteak beste.

“Bat egin Getxoko Euskararen egunarekin!”



lelopean, Udalak izango diren mota guztietako jardueren (kulturalak, euskararen sustapenekoak, kirolekoak, musikakoak...) egutegia prestatu du eta kartel batean aterako QR kode baten bidez ezagutu ahal izango dira.